

■ Gizonezko bat hil da Goroziainen izandako istripuan

B.C.L. 34 urteko gizonezkoa hil zen atzo eguerdian Goroziainen (Nafarroa), Lizarratik gertu izandako istripuan. Oraindik zergatik ez dakitela, B.C.L.-k gidatzen zuen Peugeot furgoneta baserri bide batetik irten zen. Ondorioz, gidaria irten ezinik gelditu zen, eta suhiltzaile talde batek istripua izandako lekura joan behar izan zuen ibilgailutik ateratzeko. Azkenean atera zutenean, hilik zegoela ikusi zuten. B.C.L. Lakarkoa zen (Nafarroa). Ondorioz, gorputza Iruñera eraman zuten autopsia egiteko asmoz. Goroziaingoaz gain, baina, istripu gehiago ere izan zen atzo Nafarroan. Igantziko Bente eta Sunbilla arteko errepidean, trailer batek bi auto jo zituen eta kolpearen ondorioz bost lagun zauritu ziren, guztiak arin. Iruñean, azkenik, beste bi pertsona zauritu ziren, Armadaren hiribideak Pio XII.aren hiribidearekin bat egiten duen bidegurutzean izandako istripuaren ondorioz. SOS-Nafarroako iturriek jakinarazi zuten, ospitalera eraman behar izan zituzten emakumezko bat eta gizonezko bat, ezbeharrean bizkarrezurrean hartutako kolpeak zirela eta. X

■ Gipuzkoan boluntario lanetan aritzen diren 30 gizarte talderen hitzaldiak izango dira Hernanin

GAURTIK aurrera, boluntario lanetan aritzen diren Gipuzkoa osoko 30 taldek hitzaldiak emango dituzte ostegunetan Hernaniko Kultur Etxean. Hernaniko Osasun eta Ongizate Patronatuak antolatuta, ludopatía, alkoholismoa, hiesá, gizarte bazterketa, arrazakeria, droga-menpekotasuna eta beste gai asko jorratzen dituzten elkarteak izango dira hitzaldi horietan. Antolatzaileek esandakoren arabera, Gipuzkoan boluntario lanetan aritzen diren hainbeste talde elkartzen diren lehen aldía izango da honako hau. Hitzaldien antolakuntzan Txus Congil Hernaniko droga-menpekotasun arloko teknikari eta Askagintzako kidea aritu da, eta, atzo esan zuenez, jendea gai horien inguruan «sentsibilizatzea eta informatzea» da helburu nagusia. X

■ 1989 eta 1997 artean elektrokutatutako 959 hegazi eta bost ugaztun bildu ditu Nafarroako Ingurugiro Sailak

NAFARROAKO GOBERNUKO Ingurugiro Sailak zabaldu berri duen txosten batean biltzen denez, 1989 eta 1997 artean elektrokutatutako 959 hegazi eta bost ugaztun bildu ditu foru erkidegoko ingurugiro zerbitzuak. Gainera, hiltzen diren animalien erdiak baino gehiago sarraskijaleek jaten dituztela kontuan hartuta, instalazio elektrikoetan elektrokutatutako animalia kopurua askoz ere handiagoa izango da. Hildako hegaztien kasuan, %71,5 babestutako espezieetakoak dira, eta %67, berriz, harrapariak. Arazoari aurre egiteko asmoz, Gobernuak, Europako Batasunak eta FENSA-Iberdrolak jarritako 164 milioi pezeta erabili dira Nafarroan azken hamar urteotan 72 instalazio elektriko eta argindar hariko 433 kilometro egokitze. X

■ Interneten erabiltzaileentzat Telefonikak proposatutako beherapenak kritikatu egin dituzte

TELEFONIKAK asteartean Interneten erabiltzaileentzat proposatu zituen beherapenak zorrozki kritikatu zituzten atzo Retevisioren eta Komunikazioaren Erabiltzaileen Elkartek. Telefonikak aurkeztutako BonoNet eta MasterNet egitasmoetan, Interneten erabiltzaileentzat prezio bereziak aurreikusten dira. Hala ere, deskontu horiek jaso ahal izateko, Telefonikaren oinarritzko sareko lineak erabiltzen dituen zerbitzaile bat bakarrik kontrata dezake internautak. Ondorioz, Telefonikaren ez diren lineak erabiltzen dituzten zerbitzariak deskontuetatik kanpo geldituko dira. Horrek Retevisioren erantzun gogorra ekarri du, Telefonikaren proposamena «konpententziaren aurkakoa» baita, haien ustez. Komunikazioaren Erabiltzaileen Elkartea ere Telefonikaren proposamenaren aurka azaldu da, eta konexio denbora kontuan izango ez duen tarifa laua eskatu du. X

ESKELAK



**Lolita
Erdabide
Etxaniz**

ANDREA

(Felix Murumendiaraz Arregiren alarguna)

Atzo hil zen, Donostian, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Haren seme-alabak: Maritxu eta Jose Ramon Narbaez, Esteban eta Laura Etxezarreta; anai-arrebak: Maritxu, Pilar (Pablo Narbaizeren alarguna) eta Jose; ezkon anai-arrebak: Rosarito Lonbide, Rosario Murumendiaraz (Francisco Zezeagaren alarguna), Isabel Murumendiaraz, Ramiro Lopez eta Margari Garmendia (Julian Murumendiarazaren alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta eskerrak eman, ATZO ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Bergarako SAN PEDRO APOSTOL parroki elizan, gorputza bertan zela egin zen hiletan parte hartzeagatik.

Helbidea: Plaza San Martin de Agirre, 2 - 2. Esk.

1998ko irailak 17

Paueren pean Baionako campusa itoko dela dio Bernard Caussek

Unibertsitateari buruzko ikerketa plazara dadin galdegin du


Paueren pean Baionako unibertsitate campusaren garapena «trabatzen» duela berretsi zuen atzo Bernard Caussek, IUT Unibertsitate Teknologi Institutuko buruak. «Pauen ikasle kopurua beheratzen ari da, eta Baionan, aldiz, eskaerak azkarki egin du gora, baina ez da ahalmen berri-rik eman», salatu du. Quaterner etxeak egindako ikerketa plazara dadila eskatu du.

Hur Gorostiaga / Baiona

IPAR EUSKAL HERRIKO unibertsitate ahalmenak handitzeko eskaera aspaldikoa bada ere, Bernard Causse IUTko buruak beste arrazoi bat ezarri zuen atzo mahai gainean. «Claude Allegre Hezkuntza ministroaren erranean oinarriturik, gaur egun unibertsitate bakoitzeko 20 lanpostu baino gehiago ez dira sortuko, eta hori jada mugapen garrantzitsua da. Pauen iaz 600 bat ikasleren galera izan zutenez, ez da unibertsitatea garatzeko arrazoirik ageri, nahiz eta Baiona menpekota eta hemen dugun eskaera azkarki goratu den», salatu zuen Caussek.

Atzo IUTko aurtengo sarrera aurkezpenean, 1.860 eskaeretatik 300 ikasle bertzerik ez dutela hartu azaldu zuen Caussek. Gainera, eskaera egin zuten artean aurrez selekzio bat izango zen, IUTn sartzeko espediente jantzia galdegiten delako. Gisa horretan, 666 ikasle ditu aurtun Baionako IUTk Informatika, Enpresen Kudeaketa eta Administrazioa eta Merkaturatze Teknika sailetan.

Baionako campusaren garapena • Baionako campusaren garapenari buruz hainbat gogoeta egin dira azken urtean, bereziki Garapen Kontseiluaren baitan. Hain zuzen ere, Garapen Kontseiluak Distrituarekin eta Pauko Unibertsitatearekin batera adituen ikerketa galdegin zion Quaterner etxeari campusaren garapen



Bernard Causse, IUTko arduraduna, atzoko agerraldian.

BOB EDME

aukerei buruz. Bernard Caussek atzo egindako agerraldian jakinarazi zuenez, «ikerketa eginda dago jadanik, baina oraingoz arduradunek ez dute nahi jenduraren aurkeztu». Betiere IUTko buruaren arabera, «datu interesgarriak» ageri dira txostenean garapen aukerei buruz, «nahiz eta urrunago joan litekeen».

Baionako seminario izandakoak gainezka egin duela adierazi eta Angeluko Montory campusean arlo zientifikoak bat egiteko

xedea defenditzen duela azaldu zuen Caussek. Gisa berean, Baiona Ttipiko Gaztelu Berriko aldea Paul Bert lizeoari eskaintzeko aukera ere «egokitza» jo zuen. Horretaz gain, Gipuzkoatik zientzietako arlo berriak irekitzeko eskaera jaso duela ziurtatu zuen, «egun mugaz bi aldeetan ez diren arloena». Baina, azken finean, guztia atzean «parraldeko unibertsitate campusa zabaltzeko borondatea» behar dela azpimarratu zuen Bernard Caussek. X

Kirol gestiorako masterra sortu berri da

■ SHEEK, EHUK, Eudelek eta KAITEk hartu dute parte antolaketan

Aritz Markaida / Bilbo

KIROL administrazio eta zuzendaritza masterra egiteko kolaborazio akordioa sinatu zuten atzo Soin Heziketarako Euskal Erakundeak (SHEE), Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Euskal Udalerrien Elkartek (Eudel) eta Kirol Arlorako Iritzi Taldeak (KAIT). Master horren helburu nagusia beste arlo batzuetatik datozen lizentziadunak kirolera zuzendutako baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak kudeatzen irakastea da. Masterrak aurrez definitutako kirol proiektuak bermatzen dituen gestioa eskaini nahi die kirolaren egiturei eta azpiegiturei. Masterrak bi ikasturte izango du (1998-2000), eta antolaketa klasikoak edukiko du, hiru puntu nagusitan bana-

tuta: kirolaren arlo juridikoa, antolaketa eta estrategia, eta giza-baliabideak. Atal horietaz gain, praktikak ere garrantzi handia edukiko du masterrean: 100 ordu eskainiko zaizkio.

Jose Maria Agirre Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburuordearentzat, «oso ideia egokia da, eta, batez ere, une egokian egin da». Agirrek azaldu zuen gizarte modernoetan kirolak gero eta garrantzi handiagoa duela, eta horregatik oso garrantzitsua eta egokia dela kirol munduan kudeatzaile onak prestatzea. Jose Maria Gonzalez Zorrilla Eudeleko lehendakariaren aburuz, «kirola ez da bakarrik goi mailako lehiaketa, denentzako aisía eta gazteentzako balien erreferentia eta eskola ere bada. Hori guztia bermatzeko inbertsio ekonomikoak

egin ondoren, ezinbestekoa iruditu zaigu herrietako kiroldegietan egiten den jarduera gestioatzeko profesionalen prestakuntza areagotzea master honen bidez».

Josu Azurmendi KAITEko lehendakariak esan zuenez, «herrietako kirolak garrantzi handia dauka, eta praktika hori gidatuko duten kudeatzaileen heziketa espezializatua bermatu eta euren egin duten erakundeek zentzuzko apustua egin dute». Jose Ignacio Martinez EHUKo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateko dekanok adierazi zuen gaur egun heziketa ez dela amaitzen bost edo lau urteko ikasketak egin ondoren, eta profesionalak badakitela unibertsitateko eremura itzuli behar dutela ezagupen horiek guztiak izateko. X